



Bertako sagar eta sagardoaren alde



Elkarrizketak - Elkarrizketak

2011/05/04



Arantza Eguzkiza, Gipuzkoako Sagardogileen elkarteko lehendakaria, eta Kepa Lizarralde, Arabako Sagar eta Sagardogileen elkarteko lehendakaria

«Labela duen sagardo botila erosten denean balore garrantzitsuak defendatzen ari dira»

Arantza Eguzkiza, Gipuzkoako Sagardogileen elkarteko lehendakaria

-Nola baloratzen duzu sagardoaren labela edukitzea?

Urte askotako ahalegin baten ondorengo lorpena da, baina honekin ez dut esan nahi lana bukatu denik. Lorpen hau abiapuntu bat da. Honekin bertako sagarrekin ehunetik ehun sagardo gehiago egitea espero dugu. Nolabait, label horrek geure identitatea, euskal produktu bezala, areagotuko du, baserriarrei beste interbide bat ematen lagunduz. Jakina, kalitatezko produktuak eskaintzeaz gain, baserriak paisaia eta ingurugiroa babestea suposatzen du eta guzti hori oso inportantea da gizarte osoarentzat. Ez da berdina geure mendiak eta lurrak abandonatuta eduki edo sagar ederrekin edukitzea. Denon aberatasunerako da.

-Gipuzkoan kanpoko sagarrekin lan egiten duten sagardotegi handiak daudela kontutan hartuta, labela sortzea zailagoa izan da?

Ez da erreza izan Gipuzkoan. 2000. urtean elkarteko lehendakari zenak ziurtapen edo jatorrizko izendapena lortzeko lanean ibili zen eta geroztik saiakera hori mantendu da. Beraz, lortu duguna lortzeko jende askok parte hartu du, kate bat izan da. Dударik gabe lehenago ez bada lortu agian ikuspuntu desberdinak dauzkagulako izan da, baina Gipuzkoako sagardogileen artean oro har, ez bakarrik labelean gaudenen artean, bertako sagarraren aldeko apostua egiteko gogoia

dagoela esango nuke. Etorkizuna da.

-Zeintzuk dira erronkak hemendik aurrera?

Lehenengo gauza sagardo on bat egitea da. Hori lortu dugula uste dut. Beraz, hemendik aurrerako lehenengo erronka merkatuak erantzutea da. Hori da orain kezkatzen gaituena. Euskal labela duen sagardo botila erosten denean ze baloreak defendatzen diren komunikatzen jakin behar dugu, hau da, bertako eta kalitatezko produktuaren aldeko apostua egiten ari dela. Egunetik egunera holako botilak geure mahietan ugariagoak izatea espero dugu.

«Bertako sagar barietateak errekuiperatzen ari gara»

Kepa Lizarralde, Arabako Sagar eta Sagardogileen elkarteko lehendakaria

-Zer suposatzen du bertako sagarrekin bakarrik eginiko sagardoaren labela lortzeak?

Beharrezkoa da holako labela egitea, bat da, zertifikazio aldetik garrantzia bat da, pausu bat. Geuk Araban beti egin dugu bertako sagarrarekin.

-Zein da sagardogileen egoera Araban?

Arabian oraindik hasten gaude. Sagardogile pilo bat dago autokontsumorako, berrehun edo, baina merkatuan saltzen diutenak hiru dira eta hirurak ekologikoak dira. Dena dela orain kriston mugimendua dago sagarraren sektorean eta bertako sagar barietatekin landutako hektareak goraka doaz nabarmenki

Gure lurra, gure etorkizuna

soberania alimentaria.tv



Orduan, sagar produkzioa suspertzen ari da Araban, ezta?

Orain arte eraman den nekazaritza politikarekin sagar guztia desagertzerantz joan da, baina azken boladan barietateak errekuaratzeko elkarlanean gaude Bionekazaritza eta Hazien sarearekin batera. Ehun barietate baino gehiago dauzkagu Araba mailan dagoeneko Sagardogile eta sagarren taldea batu gara denon artean plan bat egiten serioki. Aurten hektarea pilo bat landatu da; 4.000-5.000 landare berriak sartu ditugu, baina geure filosofia ez da berriro hanka sartzea eredu intentsiboaren aldeko apustuarekin, baizik eta kalitateari lehentasuna ematea.

-Nola egiten duzue lan bertako sagarraren alde?

Bertako sagar barietateak sartzeko gogoarekin guregana etortzen den jendeak sagarrekin zer egin nah duen jakin ta gero, bere lur eremua aztertzen dugu eta aholkulari teknikoak zehazten du ze barietateekin esperimintatzea komeni zaion, dibertsifikazioa ere bilatuz.



BASERRITIK MUNDUA



ELKARRIZKETAK

Eric Holt: "Baserritarras y grupos de consumo han encontrado fórmulas muy interesantes en Euskal Herria"

Eric Holt, director de Food First



Eric, ¿cuales son tus impresiones después de esta visita a Euskal Herria?

Primero de todo tengo que decir que esta es mi cuarta o quinta visita a vuestro pueblo en los últimos 15 años y he notado muchos cambios. Ultimamente por la crisis económica que experimenta Europa y sobre todo Iberia, veo que hay una respuesta emergente y nueva en Euskal Herria que yo no he visto en otras partes. Del mismo modo veo mucho interes en la ruralización, el regreso al campo es algo común, no solo por gente que está muy metida en la agricultura sino por jóvenes que no ven otro futuro y piensan que el campo puede ser una